

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Zein urrun

PELLO OTXANDIANO > 9


«LONDRESEKO BOSTAK»:

Balutxistango gerrillarekin bat egin zuten
Pakistango ikasleen bidaia harrigarria > 4

2020ko abuztuaren 29a | XIV. urtea • 686. zenbakia
0,50 euro

GAUR8


mila leiho zabalik
www.gaur8.info



NUKLEARRIK... BAI, ESKERRIK ASKO

EZ DA EMAN LEZAKEENA. ABIAN DA ITER
INSTALAZIOA, HIDROGENOAREKIN ELEKTRIZITATE
GARBI, MERKE ETA MUGAGABEA SORTZEKO
PROIEKTUA, AUZOLAN GLOBALEAN > 10

GAUR8



«Londreseko bostak» eta bat
gehiago, bidaia harrigarria
Balutxistango gerrillarekin 04

Fusio nuklearrerako ITER
instalazioa, klima salbatzeko
promesaren energia 10

Jaki ekologikoak konbentzionalak
baino hobeak al dira
ingurumenerako? 18

Zahar egoitzen eredua
birpentsatzea, orain are
beharrezkoago 20

Juantxo Egañaren behatxulotik 23



SINADURAK:

03 **Gorka Elejabarrieta:**
Pandoraren kutxak

08 **Ula Iruretagoiena Busturia:**
Osasuna lehen mailan

09 **Pello Otxandiano:** Zein urrun

14 **EXPRAI**

15 **Koldo Sagasti:** Sarraski
isilarazia

15 **Xabier Izaga Gonzalez:**
«Neureak»

16 **Beñat Gaztelumendi:**
Aireportu batean bizi naiz

17 **Mirari Martiarena Iraola:**
Gezurak

22 **Ana Elosegi Serna:** Zentzuz
jokatzea, denon onura



{ datorrena } **Gorka Elejabarrieta**

Pandoraren kutxak

Belgikan aldatzen ari da zer bait. Urteak daramatza N-VA flandriar alderdi abertzaleak Estatuaren erreforma berri bat eskatzen. Eta urteak daramatzate alderdi valoniarrek eskaera horri ezetz esaten. Haien ustez, erreforma berri batek, eskumenen deszentralizazioa ekarriko lioke jada oso deszentralizatuta dagoen Estatuari eta horrek Belgikako Estatuaren desagerpena ekar lezake. Flandriar abertzale askoren ustez, konfederalismoa da independentziaren helmugara iristeko azken geltokia. Valoniar unionista askoren ustez, berriz, konfederalismoa Belgikaren desagerpenaren aurreko azken etapa litzateke. Horregatik, hain zuzen, nahi dute batzuek azkartu eta besteek moteldu edo gelditu.

Duela hamarkada bat N-VAk lortu zuen hauteskunde emaitza onak mahaiaren gainean jarri zuen eztabaida. Valoniarren taktika, eztabaida ekidin eta erabakiak atzeratzea, Flandriako emaitza elektoralak eta alderdi abertzaleen emaitza eta garapena nolakoak ziren ikusi bitartean, eta alderdi abertzaleen porrotaren zain. Bada, hamar urte beranduago, N-VAk Flandriako alderdi bozkatuena izaten jarraitzen du eta hamar urte daramatza Estatuaren erreformaren inguruko eztabaida publikoak. N-VAren presentzia eta Estatuaren erreformaren inguruko eztabaida normalizatzen doaz, baita valoniarren begietara ere. Eztabaida egonkortzeak konponbidea edo konponbideak pentsatu, eztabaidatu eta irudikatzea ekartzen du halaber.

Orain gutxi, valoniar Alderdi Sozialistak eta N-VAk Estatuaren erreformari elkarrekin heltzeko konpromisoa adierazi dute. Pandoraren kutxa ireki dutela esango nuke. Argi dago batzuek eta besteek ez daukate erreforma berdina buruan, haien helburuak oso kontrakoak direla, baina erabaki hori, nire ustez, historikoa izan daiteke, bai eta garai berri baten hasiera ere. Emaitza, baina, ez dago idatzia, sekula ez da egoten. Estatua egonkortu eta flandriar alderdi abertzale-

aren gainbehera ekar lezake, valoniar alderdiak horretan saiatuko dira. Alderdi eta agenda abertzaleak indartzea ekar lezake halaber, independentziarako bidean beste pauso bat bilakatzen den neurrian, eta N-VA horretan saiatuko da. Datozen hilabete eta urteak interesgarriak izango dira.

Beti pentsatu dut Flandriako prozesuak badituela guretzat oso interesgarriak diren elementuak, eta Txillardegik zioen bezala gehiago begiratu behar dugula harantz, flandriarrek gurea begiratu, jarraitu eta babestu duten bezala. Lehenik, flandriar independentismoak badauka bide orri argi bat. Bigarrenik, flandriarren babes elektoral handi eta iraunkorrik gabe aipatu ditudan eztabaidak ez lirateke existitu ere egingo; beraz, agenda abertzalea egoteko, behar-beharrezkoa da norbere indarra agenda orokorra baldintzatu ahal izateko modukoa izatea, bestela jai. Hortaz, taktika, estrategia oro, norbere indarrak handitu eta indar horiei ahalik eta etekin handiena ateratzetik dator. Pertsistentzia oso garrantzitsua da, baina pertsistentzia behar da identifikatu diren beharrezko tarteko helburu eta eztabaida horietan eta ez beste gai batzuen inguruan. Etsaiak beste gai horietara bultzatuko zaitu une oro eta erraza da bide horretan nahastea. Zenbat eztabaidatzen dugu guk azken gol hori boleaz, buruaz edo norbere atean izan den edo PNVrekin ala PNV gabe izan behar duen, adostua, aldebakarrekoea? Eta bitartean etxeko lanak egin gabe. Pertsistentzia eta egin beharrekoea, bide orria identifikatzea ez da bati ere lan erraza. Eta pazientziak ere berebiziko garrantzia dauka horrelako prozesu luzeetan. Gaur ez dugu lortuko, ez gaitezen tematu gaur lortzen saiatzen. Ez duzue sekula pentsatu bizi osoa daramagula kasik gaur edo bihar lortzen? Ahalegindu gaitezen epe laburreko premia hori epe ertain eta luzeko begiradaz blaitzen. Izan ere, norabidea egokia bada, unean uneko asmatzeek eta akatsek ez daukate ematen zaien berebiziko garrantzi hori. Perspektiba. •

Agenda abertzalea egoteko, ezinbestekoa da norbere indarra agenda orokorra baldintzatu ahal izateko modukoa izatea

«LONDRESEKO BOSTAK» ETA BAT GEHIAGO

Balutxistango gerrillarekin bat egin zuten Pakistango ikasleen bidaia harrigarria

 **MUNDUA** / Karlos ZURUTUZA

1970eko hamarkadan, Londresen ikasten ari ziren bost gaztek bat egin zuten balutx gerrillarekin eta, bidean, beste bat batu zitzaien. Herri ahaztu honen errespetua eta miresmena irabazi zuten sozialista iraultzaileok.

Ahmedek nekez hitz egingen du gerri-lari izan zen garaiaz. Afganistango eta Pakistango gerrak hobekien

ezagutzen dituen kazetaria da egun, ez da harritzekoa, beraz, “Taliban” bere liburuaren milioi eta erdi kopia saldu izana, ez eta munduko egunkari handienek bere sinadura eskatzea analista gisa.

Marri klaneko kideekin
Afganistanen, 1979. urtean.
K.Z.

Nolanahi, ospe hori guztia jaso aurretik, Ahmedek hamar urte eman zituen balutxekin gerlari. Ahmed Rashidez ari gara.

Aipatu dugu gutxitan hitz egiten duela pasarte horretaz. Bere umiltasunagatik izan liteke, baina arrazoi gehiago omen daude bere isiltasunaren atzean. Diotenez, Pakistan-go Gobernuak Lahore bere jaioterrian bizitzen uzten dio baldintza bakar batekin: balutxen auzia ez jorratzea bere liburu nahiz zutabeetan.

Iran, Pakistan eta Afganistango mugek zatikatzen dute balutxen lurraldea. Herrialde haietako eskualde txiroenak izan arren, gas erreserba itzelak daude bertan, bai eta petrolioia, uranioa edota urrea ere. Bere kokapen estrategikoa ere ez da makala: Asia erdialdeko bidegurutze batean dago eta Pertsiar golkoaren atearen albo-alboan mila kilometroko kostaldea du. Ohi legez, beren sandalien azpiko aberastasunak miseria gorria baino ez die ekartzen bere jabeiei. Rashidek ederki asko daki, gertutik eta bertatik ezagutu baitzuen errealitate hori.

70eko hamarkadan, Londresen ikasten zuten 25 pakistandar ikaslek talde komunista bat sortu zuten. Besteak beste, hilabetekari bat argitaratzen zuten, “Pakistan Zindabad”, non gobernuaren politika autoritarioak eta herrialdeko egoera gorria salatzen zuten. Etxetik urrun egon arren, euren herrikideek baino informazio gehiago jasotzen zuten Pakistango egoeraz eta bertako giza eskubideen urraketez. “Pakistan Zindabad”-ek nazio eskubideen gaia gogotik jorratzen zuen eta, aldi berean, oso kri-



tikoa zen Islamabaden burututako errepresio politikekin Ekialdeko Pakistanen (Bangladesh). Taldeak, alabaina, ez zekien deus Balutxistango egoeraz.

Aldizkariaren aleak Londres, Manchester eta Birminghamen banatzen ziren, baina batzuk Pakistanera iritsi ziren klandestinoki. Bat Khair Bux Marri balutx buruzagiaren eskuetan erori zen. Marri klanaren gizon gorenak Mohamed Bhaba izeneko ordezkari bat bidali zuen Londresera eskaintza batekin: gazteek beren ideia iraultzaileak teoritik praktikara eraman nahi bazituzten, Marritarrek lagunduko zieten.

IRAULTZA ZER DEN

Londreseko gazteek asanblada bat deitu zuten erabaki bat hartzeko. Haietako zazpi balutxekin bat egitea erabaki zuten. Azken momentuan, baina, bik atzera egin zuten. Aurki, “Londreseko bostak” deituriko taldeko kideak Karatxirantz (Pakistango hegoaldea) abiatuko ziren; handik mendira jo eta Marri matxi-noekin egingo zuten topo. Iritsi berriek ez zekiten balutxeraz, ezta menditarrek urduz. Itzultzaile baten laguntza ezinbestekoa izan zen lehen hilabeteetan. Marritarrentzat zaila izango zen ulertzea etorri berriak punjabi sozialista eta iraultzaileak zirela. Sind eskualdean denbora luzez bizi izandako balutxak zirela esan zitzairen, hizkuntza galdutakoak. Asko dira eta.

Miopea eta oin zapala zenez, Rashidek ohi baino gehiago sufritu omen zuen koiuntura berrira egokitu arte. Bestalde, Bangladeshko hausturaren ostean, Pakistaneko Armadak eraso bortitza bideratu zuen

70eko hamarkadan, Londresen ikasten zuten 25 pakistandar ikaslek talde komunista bat sortu zuten. Besteak beste, hilabetekari bat argitaratzen zuten: «Pakistan Zindabad»


Aldizkariak nazio eskubideen gaia eta errepresio politikoa jorratzen zituen, batez ere puri-purian zen Bangladeshko egoera. Taldeak, alabaina, ez zekien deus Balutxistango egoeraz

balutxen kontra. Herrialdearen zatiketa berri bat saihestea obsesio bilakatu zen Islamabadentzat eta beldurraren armari eutsi zion armadak: emakume asko bahitu eta sexu esklabo bihurtu zituzten; gizonetakoak, aldiz, helikopteroetatik botatzen zituzten, basamortu erdian edo euren jatorriko herrien gainean. Ne-

kez bila liteke modu eraginkorragorik gainontzeko herrikideei mezu bat helarazteko. Aparagailu haietako batzuk Iran bizilagunaren opariak ziren. Teheran ere beldur zen Pakistango balutxen altxamendua mugaz gaindi zabalduko ote zen.

Londreseko boskoteari iritsi berri bat batu zitzaion. Mohamed Ali Talpur zuen izena, eta Sind eskualdeko balutx familia ospetsu bateko semea zen. Antza, Talpurtarrak XVII. mendean migratu zuten Balutxistandik, eta Sind eskualdeko agintariak bilakatu ziren, 100 urtez, britaniar okupatzaileak iritsi ziren arte.

«Londreseko taldearekin lotu izan naute beti, baina ez nuen haietako bakar bat ere ezagutzen. Gainera, ez naiz inoiz Londresen izan», dio Talpurrek telefonoz, Hyderabad-eko (Sind) bere etxetik. Marritarrekin bat egin baino lehen, Kazetaritzan lizentziatu berri zen gazteak denboraldi bat pasa zuen ospitale batean. Senide batek lan egiten zuen bertan, eta harengandik jaso zuen medikuntzaren oinarritzko ezagutza. Talpur balutx gerillaren “medikua” izango zen, hain zen handia taldearen eskasia. Rashidez galdetu diogu eta zera gogoratu du gizonak: «Gure kanpamenduaren egunerokoa idaztea agindu zioten, baina letra izugarri txarra zuen. Pakistandarren beste ofentsiba bat izan zela eta, koadernoak ezkutatu genituen kobazulo batean eta ospa egin genuen jarraian. Rashidi adarra jotzen genion beti; soldaduak bere bila zebiltzala esaten genion, bera zelako koadernoan idatzitakoa deszifratzeko gai zen pertsona bakarra munduan!». Azken erasoaldi bortitzak taldea zatitu



Marri klanaren esku dauden mendietan, etxera bueltatu ostean. K.Z.




zuen. Talpur eta Rashidek batera jo zuten Sind eskualdera, hango nekazarien artean babesteko asmoz.

AFGANISTAN ATERPE

Gerrak 1977ra arte iraun zuen. Urte hartan, Muhamed Zia ul Haq jeneralak boterea hartu zuen eta, geroxeago, lege martziala jarri zuen indarrean: balutx buruzagiek eta euren jarraitzaileek etxera bueltatzeko aukera eta baimena zuten. Oso gutxi bueltatu ziren. Afganistanen milaka eta milaka errefuxiatu zeuden, Marri tribukoak gehienak, eta Londreseko boskotea bertan elkartu zen berriz. Sasoi hartako gobernu komunistaren babesaren zeukaten balutxek, Pakistan erabat lerratuta baitzegoen Ameriketako Estatu Batuekin. Irandik ere balutx ugari erbesteratu ziren Afganistanen, Teheranen Jomeinik boterea eskuratu ostean. Talpur, Rashid eta gaitzaintzako guztiek, irakasle, mediku, gerlari, sukaldari eta behar ziren esparru orotan jardun zuten.

Nobat Marri izan zen erbeste-teratuen seme-alabetako bat. Afganistango Helmand eskualdean jaio zen, 1982an, eta Talpurren ikasleetako bat izan zen ia hamar urtez. «Ia denetarik irakatsi zigun, ingelesa tartean. Oraindik gogoan dut alde egin zueneko tristura», dio egun Londresen bizi den balu-



Goian, haur errefuxiatuen eskola bat, Afganistanen 1982an. Lerroon ezkerrean, Afganistango hegoaldean 1979an egindako argazkia. K.Z.

Aldizkariaren ale bat Khair Bux Marri balutx buruzagiaren eskuetan erori zen eta honek gazteei beren ideia iraultzaileak teoriatik praktikara eramateko aukera eskaini zien

Gazteetako zazpik balutxekin bat egitea erabaki zuten. Azken unean, baina, bik atzera egin zuten. «Londreseko bostak» taldeko kideak Karatxira abiatu ziren, eta, bertatik, mendira

Miopea eta oin zapala zenez, Ahmed Rashid taldekideak, «Taliban» liburu arrakastatsuaren egilea eta egun analista ospetsua, asko sufritu omen zuen koiuntura berrira egokitu arte

Gerra 1977an amaitu ondoren, «Londreseko bostak» eta hasieratik batu zitzaien Mohamed Ali Talpur gerrillako «medikua» komunistak agintean ziren Afganistanen babestu ziren

txak. Marrik urte haietako eskasia biziki gogoratzen du oraindik —«ia oinarritzko guztia- ren eza», bai eta talibanen presioa Afganistanen nagusitu zirenean. «Pakistanen jasandako bera pairatu genuen Helmand eta Kandahar artean bizi ginen balutxok», azpimarratu du Marrik. Amesgaiztoa, alabaina, ez da amaitu. Londresera 2011n heldu bezain laster, Faiz Mohamed bere anaiaren gorpua mutilatuta aurkitu zuten Balutxis-tanen. Ordurako bost hilabete zeramatzan desagertuta, eta segurutzat ematen zen Pakistan-go zerbitzu sekretuek bahitu zutela. Khudadad bere beste anaia ere modu berean agertu zen 2013ko ekainean, Bijjar bere lehengusuarekin batera. Zerrenda amaigabea da. Desagertu Balutxen Ahotsa (VBMP) elkarteak 20.000 laguneko desagertuen errolda osatu du.

Gazteon haurtzaroa gogorra izan zen oso Afganistango erre-fuxiatu kanpamenduetan. Klandestinitatean hamar urte eman ostean, malariak, hepati-tisak eta, batez ere, nekeak jota, Rashidek Lahoreko bere etxera bueltatzea erabaki zuen. Orduantxe eta handik ekin zion idazteari. Nekez asmatu ziteke- en bere lanek geroan izango zu- ten arrakasta: “The New York Ti- mes”, “The Washington Post” eta munduko beste egunkari handiek bere sinadura eskatzen

Aldamenean, errusiarrekin Helmand eskualdean 1983an egindako bilera. Behean, desagertutako balutxen alde 2013 eta 2014 artean egindako 106 eguneko martxa. K.Z.

dute, egun ere, kazetariak Afga- nistan eta Pakistango errealita- te korapilatsuak zutabe batean aska ditzan. Rashid makina bat sari eta aitorten jasotakoa da, baina umila eta gertukoa izaten jarraitzen du. Badira hamar bat urte berarekin lehendabiziko al- diz kontaktua egin nuenetik, eta prest agertu da beti nire gal- derei erantzuteko. Bere analisi zuhurrak egunkari honetan ere agertu dira hainbatetan.

Talpurez antzeko esan lite- ke. Sindeko balutxak hogeit ur- te pasa zituen han-hemenka, 1991n etxera bueltatu zen arte. Makina bat artikulua eta iritzi zutabe idazteaz gain, egun 75 urte dituen gizonak estuki ja- rraitzen du balutx mugimen- duarekin lotuta. Argazkiak gu- rekin partekatzea ote zuen galdetu diogu eta sorta eder bat bidali digu. Erraz bereizten dugu gizona, taldeko altuena baita beti.

Erretratu batzuek antzinako- ak dirudite oso. Sepia koloreak baino, bertan agertzen direnen



janzkerak eta itxurak despista- tzen gaitu: 11 metro dituzten Marritarren turbanteak, Asia erdialdean hegemonikoak di- ren galtza eta alkandora zaba- lak... Fusilengatik ez balitz, XIX. mendeko erretratuak direla pentsa liteke; baita lehenago- koak ere, baina, jakina, ezin li- teke izan argazkigintza sortu aurretiko argazkirik.

Talpurek bidalitako beste argazki batzuk gertuago daude denboran. Oraingoan ere erraz identifikatu dugu gizona Que- tta eta Islamabad oinez lotu zi- tuen martxan, 2013 eta 2014 artean. Desagertuen auzia sala- tzeko 2.000 kilometro izan zi- ren (Karatxitik ere igaro zen martxa) eta 106 egun behar izan zituzten ibiltariak ibilbi- dea osorik egiteko. Talpurek 26 egun egin zituen oinez.

Talpurek ez du etsi. Elka- rrizketaren bukaeran, esaldi bakar batez laburtu du bere bi- zitzan egindako ibilbidea: «Era batera edo bestera, beti egon naiz mugimenduari lotuta».



Ula Iruretagoiena Busturia - @ulissima5
Arkitektoa

Osasuna lehen mailan

Oporretan izanik ere, pentsatzen dut denok konpartitzen dugula nolabait bizi dugun garai pandemikoa burutik aldentzeko zailtasuna. Lagunekin topatu eta egoera nola bizi duten ez galdetzeko lanak egin behar dira, ardura eta jakin-mina elkarbanatzeko gosez garelako edo. Larria, ezohikoa, ezezaguna baita egun hauek zipriztintzen duten egoera. Irailean zer datorren jakin gabe bizi gara, batzuk beste batzuk baino urduriago. Larrialdi sanitario-ari beste hainbeste larrialdi gehitzen zaizkion arren, faltan bota dut osasunaz gehiago hitz egin ez izana, aukera paregabea geundela pentsa baitzitekeen, baina, tamalez, ez da horrela izaten ari. Osasunak maila fisiko, emozional eta mentalean oreka izatea esan nahi du, eta gutxi baloratzen ari dira modu integralean, adibidez, zahar etxeetako neurriak hartzeko garaian. Ikuspegi txiroa osasunarena, are gehiago, pandemia garaian.

Bestalde, komunikabideen helburua bilakatu da beldurraren ideiarekin bonbardatzea. Baliteke helburua egoeraren larritasuna helaraztea izatea, baina irudipena dut gorputzetan beldurraren birusa sartzen ari zaizkigula albo kalte gisa. Eta beldurra ez da osasunaren lagun. Kalera antsietatez eta beldurrez ateratzeak ez du, seguru, gure sistema immunologikoa indartuko eta bai erraztu lezake gure konpainian den birusaren sarrrera.

Gogoan dut martxoko etxealdi kolektiboa igaro ostean, askorekin konpartitu izana geldialdiak zer ekarri digun, estresa batzuentzat eta barealdia besteontzat, eta

gehienon ahotan zen zuhaitzen eta landarediaren eta haizearen egoera osasuntsua, txundiduraren eta poztasunaren artean laudorioz betetzen genuena. Garai pandemiakoan osasunaren gaineko gogoeta lehen lerroa ekartzea pandemiak ekar dezakeen onura bat izan daiteke, finen, denon ardura baita elkar zaindu eta babestu nahi izatea, eta birusak agerian utzi baitu ez gabiltzala bide onetik. Gizarte osasuntsu baten bilaketak alor asko zeharkatzen ditu, eta lurraldeak gai zentrala hartzen du, gorputzak lurraldearen parte direla ulertzen laguntzen duelarik. Gizarte baten osasuna lurraldearen osasunarekin harremanean dela pelokeria bat izanik ere, modu banatua lantzera ohituta gaude oraindik ere. Industria edo errepide bat herri baten ondoan kokatzen denean, bertako biztanleen osasunean eragin zuzena du. Hala, aire kutsaduraren

eraginez hainbat gorputzen birrikak ahulduko ditugu, birusaren aurrean hauskor bihurtuz. Denok gara erantzule, ez baikara gai izan zaintzen duen lurralde bat eraikitzeko.

Lurraldeak lagundu beharko luke gorputzak zaintzen, osasun mailan bat bermatzeko. Zeinen planteamendu ederra litzateke lurralde baten helburua ahalik eta lur-humus aberatsena lortzeko bideak ezartzea izatea, basoen biodibertsitatean tematztea, bizilekuen harmonia espazialari balioa ematea, gorputzek behar duten baldintza klimatiko egokia ziurtatzen duten espazioak sortzea, kutsadurarik gabeko arnasteko parajeak biderkatzeko lan egitea, ibai eta itsasoen urak garbi izateko azpiegiturek lehentasuna hartzea, landarediaren presentzia etxeetan nahitaezko gaitzat jotzea. Denak, osasunaren aldeko bideak lirake. •



Ilustrazioa: ULA IRURETAGOIENA BUSTURIA

{ asteari zeharka begira } **Pello Otxandiano**

Zein urrun

Eusko Jaurlaritzak urgentziaz eskatu die udalei aste honetan eskola jardunerako erabilgarri izan ditzaketen espazio publikoen zerrenda egin dezaten, ikasleak tokiz aldatzeko beharra sortuko balitz ere. Abuztuko azken astean, ikasturtea hasteko bi asteren faltan! Zaila da ulertzen, zaila denez, apirilaz geroztik beste lehentasunik izan ez duen Hezkuntza Sailak nola ez duen ikasturte berriaren hasiera beste era batera kudeatu. Nafarroan, hezkuntza komunitatearen eta oposizioaren kritikak badiren arren, Gobernuak neurri esanguratsuak iragarri zituen joan den astean –lanegun jarraitua, seiehun irakasle gehiagoren kontratazioa, baliabide materialen emendatzea–.

Ulergaitza da, ezbairik gabe, Eusko Jaurlaritzaren paralisia, erreakzio falta, kudeaketarik eza. Lehenago ere ikusi izan dugu: Zaldibarko zabor-jauzian, pandemiaren lehen egunetan, baita ondorenean ere –gogoratu EHUKo PCR proben kasua–. Baina oraingo honek badu bereizgarri fundamental bat aurreko hilabeteetako kasuekin alderatuta, are larriago egiten duena: jakina zen egoera hau gertatuko zela, edo gutxien-gutxienik gertatzea oso probablea zela. Izan ere, udaberritik geroztik kurtso hasiera erronka itzela zatekeela birusa desgertuko ez balitz. Eta denbora egon da egoera hau aurretiaz prestatzeko. Alta, ikasturtea hasi baino bi aste lehenago ez dakigu deus –atzo iragarri behar zuen Gobernuak bere plana–. Aldiz, badakigu beste herrialde eta komunitate autonomoetan, gehien-gehienetan, ikasleen ratioak jaisteko neurriak hartu direla, tartean irakasle gehiagoren kontratazioa martxan dela.

Zer dago erreakzio falta honen atzean? Ez dakit. Baina okurrizten zaizkidan erantzun posible guztiak dira tamalgarriak. Edozein kasutan, zein urrun dagoen Gobernu hau gobernantza eredu kolaboratiboetatik! Aukera izugarri polita galdu baita erretorika politikoan lekua hartu duen kontzeptu hau praktikan jartzeko. Maiatza zen unea udalekin harremanetan jarri eta erabilgarria izan zitekeen espazio publikoa identifikatzeko; hezkuntza komunitateko eragileekin bildu eta

kurtso berriari begirako moldaketak adosteko –curriculumari, ebaluazio irizpideei edota baliabide pedagogikoei dagokienez–; hautatutako espazio berrietan egokitzapenak egin eta aurreikuspen sanitarioen arabera zenbat irakasle gehiago beharko liratekeen pentsatzeko.

Behin baliabide humano eta materialak aurreikusita, zentro bakoitzak ikasturte berria prestatzeko denbora izango luke tokiko hezkuntza komunitatearekin batera, horretarako lekuan lekuko indarguneak baliatuz. Udalek, Hezkuntza Sailarekin koordinatuta, tokiko hezkuntza komunitatea dinamizatzeko ardura hartu ahalko lukete, prestaketa prozesua gainbegiraturaz, aurrez ezarritako baldintzak beteko liratekeela bermatuz. Hain logikoa, hain naturala, hain arrazionala.

Historia modernoan aurrekaririk ez duen pandemia baten erdian ikasturtearen hasiera modu partekatuan planifikatzea erronka itzela da. Ez dezagun fribolizatu, garai gogorak dira gobernugintzarako. Baina ikasturte

Ikasturte baten hasiera planifikatzea langintza aski sinplea da hurrengo hilabete eta urteetan izango ditugun erronka sozial hain konplexuekin alderatuz gero

baten hasiera planifikatzea langintza aski sinplea da hurrengo hilabete eta urteetan mahai gainean izango ditugun erronka sozial hain konplexuekin alderatuz gero. EAJren eta PSEren arteko gobernu akordioa ezagutu dugu asteon: hain anbizio gutxikoa, hain lausoa, hain grisa. Gobernuaren konposizioa ezagutzea falta. Aurrekoaren sokakoa izango den itxura guztia du. Eta jarraiera hori da, hain zuzen, itogarri zaiguna. Hain baita gure gaitasun komunitarioen neutralizatzaile, hain kontserbadore, hain zahar.

Generalitateak aurkeztu berri duen “Pla de reactivació econòmica i protecció social” dokumentuari begirada bat bota diot –shorturl.at/egnwT– eta zera otu zait: zein urrun dagoen Urkulluren Gobernu herri honek behar duen lidergo publikotik! •

LURREAN EGUZKIA ERAIKI

Fusio nuklearrerako ITER instalazioa, klima salbatzeko promesaren energia

 **ZIENTZIA /** Mikel Zubimendi Berastegi

Fusio nuklearra errealitate bat da. Mundua goitik behera aldatzeko potentziala daukan errealitatea. Hemarkadetan energia eta klima mailako desafioen soluzio bezala aurkeztu da. Bada, hori ala izango ala ez erakutsiko duen fusio nuklearreko instalazioaren azken muntaia hasi da, eta bere bideragarritasunaren inguruan dauden galderak, azkenean, erantzun ahal izango dira.

Munduko zientzia proiektu handiena dela esan dute, inoiz izan den makina konplexuena, historiako anbizio handieneko injenieritza balentria. Baina energia eta klima mailako arazoen soluzioaren promesa altzoan dakarren tekno-

logia honen neurrigabetasuna eta zailtasuna ez dira koska bakarra.

Ahalegin harrigarri honen izena ITER instalazioa da (ingelesezko *International Thermonuclear Experimental Reactor*), eta Marseilla ondoan dagoen Cadarachen hasi zen eraikitzen megaproiektua. Ha-

markada askotan zehar, fusio nuklearra botilatik atera nahi ez zuen eta mirariak egiteari uko egiten zion jenioa izan da. Orain, Proventzako txoko haietan sueto eta libre dabil, elektrizitatea sortzeko modu berria bereganatuta, atomoen banaketan oinarritzen den fisioaren, hau da, zentral nukle-

arrek baliatzen duten fisioaren, oso bestelakoa den ikuspegiarekin. Izan ere, fusio nuklearrak izugarriak diren bero eta presioak erabiliz, atomoak batzen ditu. Eta hori egitera koan, teoriar gutxienez, fusioaren prozesuan beharko litza-tekeena baino energia askoz ere gehiago ekoizten du.

ITER instalazioaren erregaia funtsean hidrogenoa izango da, mundu osoan ia nahi beste eskuragarri dagoena. Eta fisioaren zentral nuklearretan ez bezala, desagertzea oso zaila den material erradioaktibo oso gutxi sortuko lituzke. Bai, abantaila eta promesa ederrak dauzkan ahalegina da.

BAIKORTASUNA NAGUSI

Arreta merezi duen proiektua da, bai, larrialdi klimatikoaren soluzioak gehiegi berandutu direlako. Ohiko erregai fosilak, ikatza barne, ez dira behar zen abiaduran desagertu eta beraien ordeaz haizea eta eguzkia bezalako energia berriztagarriak ezartzea, oraindik ere, desafio bat besterik ez da. Gainera, zentral nuklear konbentzionalak desagertzeko aukera emate hutsa, Txernobyl eta Fukushima gogorarazten diguten bezala, esperantzarako arrazoia da.

Zientzialarien artean, eta baita inbertsoreen artean ere, kontsentsu handia dago ITER proiektua energia sortzeko gai izango den inguruan. Besterik da energia hori industrializatua izateko bezain sinple eta efizientea izango den. Baina munduak jakin behar du horrelako teknologia bat eskuragarri dagoen edo ez, bere energia hornidura bermatzen lagundu dezakeelako, denbora luze-luze baterako, betirako agian.

Instalazio erraldoiaren erai-

Munduko makina konplexuena den ITER instalazioaren irudia. GAUR8



kuntzak zientzia eta ingeniari-tzaren maila goreneko aplikazioa eskatzen du. Piezaz pieza, denbora lineal bat eraikitzea denbora lineal korapilatsu batean, erloju suitzar baten zehaztasunez.

Hartara, bestela ezinezkoa zelako, ITER nazioarteko ahalegina izan da, orain arte behintzat pandemiari eta mundu mailako tentsio politikoei nahiko ongi eutsi diena. 135 herrialde ditu bazkide, horien artean, AEBak, Errusia, Txina, Europar Batasuna, Japonia, India eta Hego Korea. Eta modu batean ala bestean, nazioarteko beste zientzia ahalegin komunaren arrastoari segitzen dio, Nazioarteko Espazio Estazioa edo Giza Genomaren proiektua kasu.


FISIKA ESPERIMENTU ERRALDOIA

Fusio nuklearraren funtsezko funtsak aletzea komeni da hemen. Hidrogenoaren atomoak presio eta bero handi-handian jartzea inplikatzeko du, helioaren atomoetan fusionatzen diren arte. Hau da, hidrogenoan aurkitu daitezkeen deuterioaren eta tritioaren nukleoak fusionatzean helioaren nukleo bat sortzen dute, neutroi bat eta energia ikaragarri bat. Erregaia 150 milioi gradura berotuz, plasma bero bat sortzeraino.

Eremu magnetiko indartsu batzuk erabiltzen dira plasma paretetatik urrunduta edukitzeko, hoztu ez dadin eta bere energia potentziala gal ez dezan. Eremu magnetikook ontzia inguratzen duten bobina super-eroaleen eta plasmarekin bultzatzen den korrante elektriko batzuen bidez sortzen dira. Izan ere, energia sortu dadin, fusioa emateko behar den denboran konfinatua egon behar da plasma.

Maila goreneko zientziaren eta ingeniartzaren aplikazioa eskatzen du. Piezaz pieza, denbora lineal korapilatsuan puzzle tridimentsional bat eraikitzea, erloju suitzar baten zehaztasunez

Hidrogenoan diren deuterioaren eta tritioaren nukleoak fusionatzean helioa, energia, sortzen da. 150 milioi gradura berotutako plasma bat, partikula subatomikoen zopa gaseoso



Garabiak, ITER instalazioaren bihotza den Tokamak ganbera eraikitzen. GAUR8

Fisika esperimentu erraldoia da, izugarri garesti eta konplexua. Baina ITER arrakastatsua bada, etorkizuneko energia instalazioen nolakotasuna definitzeaz gain, gure planeta berotzen duten emisioak ia desagertzearainoko ekarpena egin dezake. Desagertu, guztiz desagertu ez, baina beldurgarri gutxitu, bai.

Aspaldiko ametsa da, orain artean egia egin ez arren, amets zoragarri izaten jarraitu duena. Errealitatearen azterketa pasatu behar izan ez duen ametsa. Hori da dena: eguzkian ematen den erreakzio atomikoa beste eskala batean kopiatzea. Ez, hobe esanda, kopiatzea baino, kontrolatzea. Teknikoki hitz eginda, eguzki

txiki bat lurrean eraikitzea. Edo bestela esanda, elektrizitate garbi eta mugagabea helburu, erabateko urratsa, erabakigarria erabat.

Baina, argi, ITER instalazioak beroa ekoiztuko du, ez elektrizitatea. Eta, jakina, kontsumitzen duena baino energia gehiago ekoizten badu (eskala txiki-txikian egindako esperimentuek guztiz frogatu ez dutena) orduan posible da industrializatzea. Erregai fosilen instalazioek isurtzen duten karbonoa isurtzen ez duen elektrizitate instalazioa eraikitzea, atomoak banatzen dituzten zentral nuklearren arrisku gehien-gehienak izan gabe.

Horrenbestekoa da eskala, hainbeste herrialde daude, normala ere badela holako proiektu batek estropezuka aurrera egitea. Diseinu arazoak direla, edo presio politikoak, beti egongo baitira kostuak handitu eta denbora luzatuko duten kontuak.

Nazioarteko argazki agentziek banatu dituzten irudietan ikusten dira garabiak jada esperimentuaren bihotzaren egitura muntatzen, “Tokamak” deitzen duten erroskilla baten forma duen ganbera. Bertan emango dira fusioaren erreakzioak, plasma baten baitan, partikula subatomikoen zopa gaseoso batean. Atomo ionizatu hodei zurrumbilotsu hain bero bat, ezen eremu magnetiko izugarri indartsuekin baino ezin daitezkeen eutsi.

Demagun proiektua ziztu bizian doala, arazorik gabe, dena alde. Hala balitz ere, hidrogeno puruaz lortutako lehen plasma horren helburua ez da biharko. Urte batzuk beharko dira oraindik. Zortzi? Hamabi? Denetarik irakurtzen da. Oso konplexua baita auzia: irakiten dagoen plasma dago tarte-


an, hidrogenoaren bi isotoporen –deuterioa eta tritioa– formako erregai ontza baten frakzioa, sei-zazpi minutuko iraupena gehienez, eta energia kantitate erraldoia askatuta.

Fusio nuklearra oso garestia da. ITER instalazioaren diseinu eta kostua 20.000 milioi eurotan zenbatetsita dago. Eta, jakina, benetako kostu erreala, ba disparatua, kontrolik gabea, seguru aski, kalkulazina izango da. Eskala izugarria delako: beste pieza asko hornitzeaz gain, AEBen ekarpena hegazkin-ontzi bat –irakurtzen denez– altxatzeko gai den elektroiman erraldoi bat eraikitzea da. Balentria da ingeniari-tza desafio horiei aurre egitea.

ENERGIA KANTITATE ITZELAK

Erreparasatuz, ITER instalazioko Tokamak ganberan deuterioaren eta tritioaren nukleoak fusionatu behar dira helioa sortzeko, eta prozesu horretan alimaleko energia kantitate bilakatuko den masa kantitate txiki bat galduko da. Fusionatu ahal izateko, nukleo atomikoak beldurgarri azkar mugitu behar dira, eta hain bero egon behar dute ezen gai izan behar diren prozesua eragotzi nahi duten indar naturalak gainditzeko, beraien artean talka egiteko. Eguzkian hori egitea errazagoa da, muturreko eremu grabitazionalen lanaren zati handi bat egiten dutelako. Hartara, nukleoak 15 milioi graduko tenperatura batera egon behar dira, Tokamak ganberaren barruan, eguzkiko erakarren grabitazional indartsurik gabe, atomoak hamar aldiz gehiago berotu behar baitira.

Horregatik behar da energia kantitate erraldoia, plasma berotzeko, eta eremu magnetikoak eta mikrouhinak bezalako beste iturrietatik ere hartzen



da energia. Eta gero, pareteki-ko metro batzuetako distantzian, elektroiman supereroaletan harilkatuta, zero absolutuaren inguruko tenperaturaino hoztu behar da.

Esan beharrik ez dago, eta balego, errepikakorra izatearen beldurrik gabe berriz esan behar da: prozesuaren desafio material eta teknikoak ikaragarriak, beldurgarri handiak dira.

Gaurdaino, fusio nuklearerako erreaktore guztiek erabilitikoa baino energia gutxiago ekoizti dute, defizita beti egon da hor. Baina fisikarien ustez, ITER instalazioak, bere eskala eta neurri handia baliatuta, hamar aldiz energia gehiago sortuko du. Baina, hala ere, erronka eta arrisku asko, gehiegitxo, dauzkate ideia bururaino eramateko. Besteak beste, eta bereziki, plasmaren ertzetan eman daitezkeen eze-gonkortasunak, esperimientua hondatu dezaketenak.

Beste alde batetik, baina, fusio nuklearrean eman daitez-

keen kontrolik gabeko arriskuak ez dira ematen. Gainera, hondakin nuklearrak sortzen diren arren, ez dute egungo gastatutako erregai-barra erre-aktiboek duten bezain bizitza luzea, eta fisio erreaktoreetatik irradiatutako osagairik ere ez dago.

INDUSTRIALIZATZEKO GERTU

Fusioa zientzia esperimientu garesti izatetik merkaturatuko den energia iturri bideragarri izatera igarotzeko jautzia falta da oraindik, noski. Baina ITER instalazioko arduradunek aurreikusten dutenez, lehen aldiz historian, gai izango dira

Dezepzio latzak egon dira hamarkada luzez. Beti defizit energetikoarekin, adarra joaz fusio nuklearrari: etorkizuneko energia dela, izan dela eta izango dela. Beti etorkizunekoa

Horra plana: izarren energia lurrean ekoiztea, eguzki txiki bat lurrean eraikitzea. Horra ingeniariaren erronka erraldoia, inoiz gauzatu den proiektu zoragarri eta korapilatsuena

Eguzkiaren erreakzioak erreproduzitu eta kontrolatuko dira, eguzkiaren zentroa baino hamar aldiz tenperatura altuagoetara.
GAUR8

fusioan kontsumitzen den baino energia gehiago ekoizteko. Eta helburua, edonondik begiratuta ere, oso noblea dirudien helburua da. Aldaketa klimatikoa atzeraezina izan baino lehen horrelako promesak eskaintzen dituen energia ekoiztiko duen instalazio bat prest izatea ederra litzateke. Hamabost urte barru, karbono isurketarik gabeko fusioa eskuragarri, industrializatzeko gertu, izatea benetan izugarria litzateke.

Pentsatzen jarri eta promesa beldurgarri ederra dela dator-kizu burura: erreketatik eta karbono isurketatik libre dagoen energia iturria. Erregai fosilekin eta fisio nuklearretan erabiltzen den uranioarekin gertatzen den kontrara, sekula ere ez da hidrogeno eskasiarik egongo. Ez negutegi efekturik ezta hondakin erradioaktiborik ere. Munduaren sistema energetikoen iraultza totala iragartzen du egitasmoak, errotikakoa, gutiziagarria: mugagabea izango den elektri-

zitatea, merke-merkea, isurketa kutsakorrik gabea.

Lehen aipatu dugunez, orain arteko esperimientu guztiek defizit energetiko batekin funtzionatu dute, eta horrek elektrizitatea sortzeko ahalegina antzutzen zuen. Dezepzio latzak egon dira, hamarkada luzez, adarra jo izan diote fusio nuklearrari: etorkizuneko energia da, izan da eta izango da. Beti etorkizunekoa.

Plasmarekin lana egitea ez delako petrolioarekin lan egitea bezalakoa, partikula subatomikoen zopa gaseosoak kontrolatzeaz ari garelako, eremu magnetiko ultraindartsu bartzuen bidez erroskilla formako ganberaren edozein zatirekin kontaktua egitea ekidinez. Zenbat eta handiagoa eremu magnetikoa, orduan eta trinkoago zukututa erregai hori.

ABANTAILA ASKOKO ENERGIA

Horra gizateriaren historian egin diren bost proiektu garestien artean dagoen proiektua. Ingeniaritzak seku-

la ezagutu gabeko erronka, pertsonak inoiz burutu duten proiektu zoragarri eta korapilatsuena. Horra plana: izarren energia lurrean ekoiztea, eguzki txiki bat lurrean eraikitzea. Gero eta gertuago dagoen plana.

ITER instalazioa –munduan fusio nuklearrean den aurreratuena– %65ean eraikita dago jada. Lehen plasma lortzeko data ere bada: 2025eko abendua. Erreaktorearen zati printzipalak muntatzen hasi dira. Indiak ekoitzi duen Tokamak ganbera (inoiz eraiki den ontzi huts handiena da, 30 metroko diametro eta altuerarekin eta 3.850 tonako pisuarekin) errealitatea da. Laster muntatuko da. Bere krioatatzeko bi ganberekin, beroa pasiboki ezabatuko duten bere ontzi huts eta ingurune huts ultrahotzeko imanekin.

Proiektuaren urrats kritiko batean gaude, zati honetan egongo delako plasmaren fusioaren nukleoa ahokatuko duen eremu magnetiko zinez indartsua. Munduko iman supereroale handienak izango ditu, 1.540 milioi gradura dagoen plasma bat gordetzeko aski boteretsuak. Erraz idazten da, baina gogoratzekoa da: eguzkiaren zentroa baino hamar aldiz beroago.

Eguzkia eta gure astro guztiak aktibatzen dituen energiaz ari gara, izarren energiaz, zentral nuklearren edo bonba atomikoen fisioaren oso bestelakoa den erreakzio batez. Abantaila asko dituen energia iturria da, hornidura mugagabea, segurtasun hobea.

Jakina, denak ez daude ados. Izan ere, oraindik ere konpondu gabeko arazoak dira tartean: fusio nuklearrak eskatzen duen dirutza, sortutako tritioaren gas erreaktiboa... Badira

energia berriztagarrien konbinazio erradikal baten aldeko apustu koordinatua egitea hobe litzatekeela diotenak, energia eolikoa, geotermikoa, hidroelektrikoa, eguzkiarena edo itsas-mugimenduena bultzatzea merkeagoa litzatekeela, azkarragoa, betiere, ingurumenean inpakturik gabeko energiari ez dagoela jakitun.

Aitorpen hori eginda, egin ditzagun kalkuluak orain: gizateriak, egunero, 10 terawatt kontsumitzen ditu, hots, 10.000 zentral nuklearren energiaren pare. Beldurgarria da zenbakia, baina are beldurgarriagoa da energia horren zati garrantzitsu bat erregai fosilen erreketak masiboaren eskutik badator, egunean 90 milioi petrolio-upelen baliokidea. Eta hori munduko parte aberatsenean, mundu osoa maila berean jarrita, kontsumoaren eztanda frenetiko bat, neurtezina, egongo bailitzateke. Horrek planteatzen duen desafioaren erantzuna da fusioa nuklearra, agian baita alternatiba bideragarri bakarra ere. Nukleo txikiak nukleo handiagoak sortzeko batu, prozesuan masa bat galdu, eta Einsteinen hitzen arabera ($E=mc^2$), sortzen diren partikula eta nukleoaren energia zinetikoa bihurtzen da.

HORIZONTEA, ZABAL ETA GERTU

Fusio nuklearra ez da berria, egia esateko, dezente ondo ezagutzen da. Beti eduki du ametsetik asko, amets bat baino ez dela, baina a ze ametsa! 1960ko hamarkadan eraiki zuten errusiarrek lehen erreaktorea hainbat teoria zientifiko esperimintatzea xede. Proba asko egin dira, askotariko emaitzak eman dituztenak, baina fusioaren komertzializazioa iristea oso zaila izan da.

Munduko iman supereroale handienak izango ditu, 1.540 milioi graduko plasma bat gordetzeko aski boteretsuak. Erraz idazten da: eguzkiaren zentroa baino hamar aldiz beroago

Ardura eta promesak handiak dira. Inoizko makina konplexuena martxan jartzea delako xedea, energia forma dentsoena ekoiztea: fusio erregai litroa 55.000 petrolio-upelen baliokide


Duela ehunen bat urte ulertu zen fusioa zela eguzkia aktibatzen zuen prozesua. Eta historian zehar zientzialari asko prozesu hori birsortzen saiatu dira. Punta-puntako zientzia egin da, *big science* deitzen dutena, baina herren geratzen zen beti. Ez zegoen industrializatu ahal izateko horizonterik. Egun, modelazioan eta konpu-

tazioan eman diren aurrerapekin, gauzak asko aldatu dira, posible denaren horizontea asko zabaldu eta gerturatu da.

Fusioa nuklearra energia lortzeko bide perfektua bezala definitu zitekeen, gauza batenatik ez balitz: ez zekiten nola egin. Orain badakite.

Munduko makina konplexuena martxan jartzea ez da

erraza, are bere ardura, bere promesa, itzela bada. Energia forma dentsoena ekoizteaz ari gara: fusio erregai litro bat 55.000 petrolio-upelen baliokide. Bere forma ohikoenean, iturri ia agorrezinetik etorriko den energia. Itsasoko bi kilometro kubiko urek, teoriarik behintzat, munduko petrolio erreserba guztiek baino energia gehiago eskaini ahalko dute. Nonahiko energia da, segurua, karbono gabea, planeta elektrizitatez elikatzeke gai izan daitekeena. Horixe merezi duela horretan lan egitea. Horixe opa behar zaiola munduko zortetik onena. Eta ametsa, ametsa beti. Eta zenbat eta errealitateetik urrunago, hobe. Hola egin delako posible lurrean eguzki bat eraikitzea.



Fusioaren erregaia metal likidoen zurrumbilora dispartzen duen plasma injektore baten irudia. GAUR8



EXPRAI

iRRITZIA:



Sarraski isilarazia

Koldo Sagasti

Sare sozial batek duela hamar urte argitaratutako argazkiaren oroitzapena ekarri dit gaur akordura. 2010eko abuztua zen eta brigada bateko kideok urtebete lehenago Israelgo Armadak burututako sarraskiaren inguruko testigantzak jasotzen ari ginen Gazako zerrendan. Armada sionistak “Berun urtua” ezizenez bataiatu zuen 2008ko abendutik 2009ko urtarrilera bitartean kokagune palestinarreko populazioaren kontra zuzendutako erasoak. 1.434 palestinar erail eta bi milioi biztanleren bizitokiko azpiegitura oinarritzkoenak birrindu zituzten. Urtebete geroago, erretratuak erakusten duen bezala, nabariak

ziren triskantzaren ondorioak: eraikin suntsituen hondarrak, bonbardaketetan bizitokia galdu zutenak biltzeko eraikitako behin-behineko kanpamenduak. Gerora ere, beste hondamendi batzuk etorriko ziren, besteak beste, 2014ko “Babes hesia” izeneko operazio militarra, zeinean ejerzito okupatzaileak Gazako 2.310 hiritar garbitu zituen. Edo azken urtean “Itzuleraren martxa” izeneko ekimen herrikoiaren aurka bideratutako erasoak. Asteroko manifestazio bake-tsuen aurkako oldarraldietan gudaroste sionistako frankotiratzaileek hirurehun gazatar erail eta bizi arteko zauriak eragin dizkiete 30.000ori baino gehiagori.

Hamarkada pasa da argazki hura atera nuenetik eta sarraski bakoitzeko hondakinak aurrekoaren hondakinen gainean pilatu dira etengabe. Azken asteotan ere Israelek Gazako Zerrenda bonbardatzen dihardu. Abuztuaren 6tik aurrera erasoak ez du etenik izan, eta hamarnaka lagun erail dituzte tarte horretan. Baina horren aipamenik nimiñoena ere ez da egin albistegietan. Zenbaterainokoa izan behar du hildakoen kopuruak nazioarteko prentsak fokua Gazan jar dezan? Zenbat egunetako bonbardaketa? Gazatarren okela kiloak oso merke kotizatzen du, nonbait, arreta mediatikoa- ren azokan. •

«Neureak»

Xabier Izaga
Gonzalez

Ordurako burua nahasita omen zuen. Ekitaldi bat zegoen Gasteizko Foru Plazan. Bero sapa. «Ama, hemen geratuko gara, gerizpean». Amak ezetz eta ezetz, «nik behera nahi dut». «Baina nola ipiniko zara eguzkitan!». «Behera eramateko esan dizuet!». Tira, behera. Urtu egingo zela pentsatu genuen amaren gurgil-aulkia behe alderako bidean aurrera generamala, eta amak, nahi zuen lekura iristean lasaiago: «Nik neureekin nahi dut». Orduan ikusi genituen preso senideak. Burua nahasita...?

Ez dut gure amaren hagiografiarik idazteko asmorik. Besteak beste, egunotan, joan den zapatuan hil zenetik, jende askok, batez ere bere jendeak, ezagutzen duela egiaztatu dudalako, eta ezagutzen duen jendeari ez diot zertan esanik nola-koa zen. Ez nator, ez, amaren gainean hitz egitera, haren eta gure ondoan izan zartzen guztioi esker ona adieraztera baizik. Egunkari honetako lankideengandik hasita, amaren eta gure lagun, ezagun eta ezezagun askok haren azken agurrean bertatik bertara egoterik izan ez bazenu-ten ere, hantxe izan zineten, zinez.

Domekan, beilatokira iritsi ginenean, zain genituen amaren zerraldoaren gainean Etxerateko lagunaren kinkea, hain-beste urtean amaren sama babestu duen lepo-zapia eta lore sorta ederra. «Bereak» hantxe zineten, hantxe zinetenez. Eskerrik asko bihotzetik. Eta eskerrik asko zuen eta gure lagun Felix Placerri, ama joan aurretik eta joandakoan ere berarekin, gurekin izan delako. Eskerrik asko denoi «bereak», gureak izateagatik. Lagun fisikari bati galdetu behar diot nola litekeen gorputz txiki batek horren hutsune handia utzi izana. •



Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

Aireportu batean bizi naiz

Aireportu batean bizi naiz. Nirea ez da pelikuletako aireportu bat, ordea. Hemengo pilotuek ez dute musika-bandarik izaten

atzean. Jendea elkarri begira gertzen ez den aireportu bat da nirea, bidaiariak bizkarrak karga-karga eginda dabiltzana, poliziek zaindua, bere denbora eta arnasak metalezkoak diren aireportu bat. Hesien gainean ukondoak bermatuta jendearen joan-etorri presatuei begira jarri naiz. Nora ote doazen galdetzen diot nire buruari, norabait ote doazen edo denbora errazago iragate aldera soilik dabiltzan oinez, hanken ibiliak ordulari digital erraldoien barruko zirkuituak azkarrago mugituko dituen esperantzaz.

Badakizue, mundu honetan ez dago aulki batean eta bakarrik eserita egotea baino ekintza ezerosoagorik. Nora begiratu, besteak gure egoeraren erridiku-luaz jabe ez daitezten? Eskerrak mugikorrak asmatu ziren ezer egiten ari ez garenean ere zerbait egiten ari garenen itxurak egin ahal izateko.

Aireportu batean bizi naiz. Nire aireportuak etorbide zabalak eta kale estuak

dauzka, etxeak eta parkeak, eskolak eta fabrikak, itsasoak eta mendiak. Urtaroak ere igarotzen omen dira bertatik, baina erotuta dabil-tza aspaldion.

Abuztuko azkeneko asteburua da hau, baina otsailez mo-zorrotuta iritsi da, euritsu eta ospel. Hesiaren atzean Arriaga ikusten dut, Udaltzaingoaren zintaz itxia. Gaur urtebete hemen ibiliko zen jendetza irudikatu dut, txosnen zarata Area-tzan eta katxi edalontzi zanpatuak espaloi gainean. Egunsentia, ezezagunak ere kide bilakatzen ditugun gaupasaren osteko euforia une hori. Gaur bidaiariak baino ez ditut ikusten, bidaiariak eta estazio eta igogailuetako elkarriketa hotsak, espazio eta denbora hutsak hitzez estaltzea beste helbururik ez duten jardun hi-

peraktibo horiek. Hegaldien panela erotu egin da; iraila baino ez da agertzen. Eta irailetik aurrera, ezer ez. Honek denak zentzurik ba ote daukan galdetzen diot nire buruari; hitz hauek, inguruan entzuten den musika-k, ze zentzu daukan guztiak. Ba ote den hegalditik hegaldirako parentesi-arte honetan irauten duen ezer, eragiten digun zerbait. Edo hor-txe jarraitzen dugun, Godoten espe-roan.

Aireportu batean bizitzearen ajeak, badakizue. Inguruan dauzkadaren gorputz kargatuak arindu nahiko nituzke, orno eroriak zuzendu, ikaraz betetako zorroak hustu. Eta, halako batean, nire itzala ikusi dut lurrean, noragabe eta biz-

karra makur-makur eginda. Martxotik hona entzun, irakurri eta esan ditudanak he-zurren artean pilatu izan balitzaizkit bezala. Ez-uda, ez-festak. Dena mugitu didate. Eta ni ere hara-hona abiatu naiz, inguratzen nauten ez-leku eta ez-denbora k ibiliaren ibiliz urtuko direlakoan. Hegazkin bat hartu nahiko nuke, Abu Dhabira edo iazko abuztura, adibidez. •



Abuztuko azken asteburua da, baina Udaltzaingoaren zintaz itxia ikusten dut Arriaga.

Marisol RAMIREZ | FOKU

{ koaderno } **Mirari Martiarena Iraola**

Gezurrak

Gezurrari buruz hausnartu duzu azken aste-etan. Umetatik esan dizute gezurrik ez dela esan behar eta ez dakizu nola, baina ikasi zenuen. Gezurrak esaten edo egiak ez ziren gauzengatik ordezkatzan. Gertatutakoari beste perspektiba bat emanez, errealitateari ukitu artistikoak jarritz. Imajinazioaren Photoshop filtroak. Gezurrak esaten ikasi zenuen, nonbait ikusi eta entzun dituzulako. Gezur kolektiboak, familia-ko gezurrak, gezur magikoak... Pinotxori ez bezala, ez zitzaizun inoiz sudurrik luzatu gezurrak esandakoan, baina bazenekien bazituela albo kalteak. Horietako bat Pepito kilkerraren ahotsa etengabe buruan izatea.

Komunikabideetan gezurrak esaten direla ikasi zenuen. Jende askok esaten duen esaldia da: «Egunkarian esaten diren egia bakarrak eskelak dira». Baina aitzak esandakoa etortzen zaizu beti gogora: «Ongi idatzita badaude, bai». Azken hila-beteetan gezurriak, gezur-tiei gezurrak aurpegiratzen ikusi dituzu. Egia zer den baina ote dakiten galdetzen diozu zure buruari.

Egiaz eta gezurraz harago dagoen lurralde bateko kide izan zinen eta bertan Oier Guillan idazlearekin hitz egin zenuen gezurrei buruz, argitaratu zuen “Mr. Señora” laneko pasarte bat aitzakia hartuta. «Amestea ere gezurrak esatea da eta horri esker egiten dugu aurrera. Ametsak azkenean existitzen ez diren gauzak dira, alegia, gezurrak nolabait esateko eta horri esker egiten dugu askotan aurrera». Orduan gezurretan bizi ote ginen galdetu zenion: «Gakoa beste behin, hedabideekin bezala, gezurra tresna bat dela jakitea da eta zuk zure gezurrak ez sinestea. Hori da egon litekeen arriskua». Eta hor ibiltzen zara ametsak egia bihurtu nahian, baina jakinda betiere ezin dituzula erabat sinetsi. Batzuetan egia bihurtu zaizkizun arren.

Umetatik ikasi dituzu gezurrei buruzko esaera zaharrak: «Gezurrak hanka motza du». «Gezurra esan nuen Getarin, ni baino lehenago zen atarin». «Gezurriak zer

duen merezi? Egia esatean ez sinetsi». «Gezur bat, egia galdu bat». Teorian badakizkizu eta praktikak erakutsi dizu egiarekin hobeto egiten direla gauzak, nahiz eta egia batzuek mina eman dezaketen.

Gezurra esan dizun azken pertsonak gezur handiak eta txikiak daudela esan dizu. Nolabait justifikatu behar zuen zuri min eman izana. Ados egon zintezkeen ez bazizun egiaren zati handiena ezkutatu, harremana-ren oinarrian zegoena azken batean. Lehenengo momentuan haserretu egin zinen, baina bigarren arnasaldian dezepzioa sartu zitzaizun sudur zuloetatik biriketaraino. Egunak pasa zenituen burumakur. Zure burua zigortu zenuen inongo momentutan bestea zailantzan ez jartzeagatik. Baina hori ere ikasi duzu, besteengan konfiantza izaten, ez duzulako pentsatzen besteak min eman nahi dizunik. Horregatik eskatzen

Egia-osteari buruzko hitzaldi batean entzun zenuen: «Gezurrak ez du inoiz egia estaliko». Eta momentuan ulertu ez zenuen arren, bazenekien egiazko esaldi bat dela

diozu ingurukoei gauzak diren bezala kontatzeko eta esateko, anestesiarik gabe. Gero sor daitezkeen sentimenduen kudeaketa zure gain hartuz. «Hau da dagoe-na» hasieratik diotenak zure eskura jartzen baitu ze bide hartu nahi duzun.

Zure buruarekin duzun Whatsapp taldean bidali zenuen azken mezua irakurri duzu gaur kasualitatez. Egia-osteari buruzko hitzaldi batean entzun zenuen: «Gezurrak ez du inoiz egia estaliko». Eta momentuan zer esan nahi zuen ulertu ez zenuen arren, bazenekien egiazko esaldi bat dela. Egiarekiko interesik nagusi ez den garaiari deitzen omen zaio “egia-ostea”. Gezurriari buruz hausnartu duzu azken asteetan. Agian zuk ere, “Mr. Señora” liburuan bezala, agian egiazkoak diren gezurrak esan beharko zenituzke sendatzeko. •



AZTARNA EKOLOGIKOA

Unai Garcia Ingurumen teknikaria (Grunver Sostenibilidad)

Azken hamarkadan gorakada handia izan dute jaki “ekologikoek”. Gero eta gehiago dira etiketa hori duten produktuetan espezializatu diren dendak, eta supermerkatu handi gehienek ere prestatu dituzte salgai horientzako korridore bereziak.

Badakigu gure dietak ingurumen aztarna nabarmena

Jaki ekologikoak konbentzionalak baino hobeak al dira ingurumenerako?

Kontsumitzaile asko jaki «ekologikoak» lehenesten hasi gara, konbentzionalak baino osasuntsuagoak eta ingurumenerako hobeak direla pentsatuz, baina gutxi dira produktu batek etiketa hori eramateko bete behar dituen irizpideak ezagutzen dituztenak. Ikus dezagun benetan diren onuragarriagoak.

eragiten duela (jakiak ekoizten dituen sektorea da urtero isurtzen diren berotegi efektuko gasen laurdenaren erantzulea, eta desagertzeko arriskuan dauden espezie gehienak laborantza eta abeltzaintza intentsiboak mehatxatzen ditu), eta asko gara, hori dela eta, teknika alternatiboak erabiliz ekoiztutako produktuak erosteko esfortzua egiten dugun kontsumitzaileak.

Osasuntsuagoak izateaz gain, ingurumena errespetatzen dutela uste dugu. Bista-koa dirudi, behintzat.

PRODUKTU «EKOLOGIKOA»

Produktu batek “organiko”, “ekologiko” edo “bio” abizena eraman dezake Europar Batasuneko 848/2018 araudia bete eta dagozkion tasak ordaintzen baditu.

Funtsean, kontuan hartu behar den irizpide nagusia honakoa da: produktua osatzen duten jakien %95 ongarri, pestizida eta herbizida sintetikorik eta hormonarik erabili gabe (abereen kasuan) ekoizti behar dira. Jomuga ingurumena eta kontsumitzaileak babestea dela dio testuak, baina, bestalde, hori da produktu “ekologikoek” bete behar duten baldintza ia bakarra.

Ikus dezagun ea eraginkorra den irizpide hori, helburua lortze aldera.

HOBEEK AL DIRA OSASUNARENTZAT?

Askok izan dira produktu ekologikoak osasunarentzat seguruagoak edo nutritiboagoak diren aztertu duten ikerlanak. Badaude pestizida eta kutsatzaile aztarna gutxiago dituz-



Produktu guztiek, ekologikoak zein konbentzionalak, osasun azterketa berak gainditu behar dituzte.

tela adierazten dutenak, baita hainbat bitamina eta aminoazidoren kontzentrazio altuagoak dituztela diotenak ere. Hala ere, ikerketa gehienek ez dute jaki organiko eta konbentzionalen arteko ezberdintasun esanguratsurik antzeman.

Jaki konbentzionalak ez lirake merkatuko apaletara helduko, pestizida eta ongarri sintetikoetatik eratorritako kutsadurarik izango balute, produktu guztiek osasun azterketa berak gainditu behar baitituzte. Gainera, jaki “ekologikoak” ekoizpenean kobrea eta sufrea bezalako pestizida naturalak erabiltzea baimentzen du araudiak. Sintetikoak izateak ez du zuzenean esan nahi kutsatzaileak direla, produktuari kalterik egin gabe arazoari era zehatzean aurre egiteko diseinatzen baitira. Halaber, jatorri naturala izatea ere ez da osasunarentzat hobea den adierazle.

Bestalde, mantenugai gehiago dituztela egia izango balitz ere, hain dira baxuak ikerketetan aurkitutako aldeak, ezen ez bailukete osasunean onura adierazgarrikerik eragingo. Produktu konbentzionalako dieta orekatu batekin sobera lortu daitezke mantenugai guztiak.

Ez da frogatu, beraz, produktu “ekologikoak” osasunerako hobea edo seguruagoak direla.

HOBEAK INGURUMENERAKO?

Produktu “ekologikoak” ingurumenean eragiten dituzten onura eta kalteak ezbaian daude zeharo, ingurumen alderdi guztiak kontuan hartzea oso konplexua baita.



Bada jarraitu dezakegun jarraibide seguru bat: tokiko eta sasoiko jakiak kontsumitzea.

Gorka RUBIO | FOKU

Alde batetik, laborantza “ekologikoak” kimikoak ez diren metodoak lehenesten ditu plaga eta gaixotasunak saihesteko, labore txandaketa eta landare eta animalia espezie konkretu batzuk ustiatzea, esate baterako. Horrek pestizida eta ongarri sintetikoak ekoizpenean kontsumitutako energiarekin lotutako aztarna ezabatzen du, eta kimiko horien osagai diren fosforo eta nitrogenoak inguruko ur masak kutsatzea saihesten du. Horrez gain, espezie ezberdinak landatzeak tokiko biodibertsitatea sustatzen du, eta eraginkortasun handirik eskatzen ez zaionez, lurrak bere propietateei eusten die.

Hala ere, produkzioa areagotzeko teknika aurreratuak ez erabiltzeak jaki kopuru bera lortzeko lurzoru azalera handiagoa okupatzera behartzen

ditu laborantza eta abeltzaintza “ekologikoak” (batez beste, teknika konbentzionalarekin alderatuta, %25 eraginkortasun gutxiago lortzen da). Hori dela eta, mota horretako laborantzak eta abeltzaintzak azalera handiagoak okupatzen dituzte, eta horrek eragin dezake, lekua lortze aldera, atmosferako karbonoa xurgatzea eta ingurumen balio handia duten ekosistemak suntsitzea.

Produktu “ekologikoak” ingurumen alderdi batzuetarako onuragarriagoak izan daitezke, baina beste batzuetan, berriz, kalteak eragin. Zein da hobea, lurzoru gutxi okupatu baina beti labore berdina landatzea, edo lurraren propietateak zaindu baina horretarako karbonoa xurgatu lezakeen azalera handiagoa okupatzea? Eta zeinek sortzen du aztarna handiagoa, lekua lortzeko biodi-

bertsitate handiko baso bat mozteak, edo ongarri sintetikoekin inguruko ur masak kutsatzeak?

Kasuz kasu produktu bakoitzaren bizi zikloa sakon aztertu eta ingurumen alderdi bakoitzaren pisu erlatiboa zehazten duen ikerketarik gabe, ezin dezakegu esan, oro har, teknika bat bestea baino onuragarriagoa dela.

ONDORIOAK

Ez dago produktu “ekologikoak” osasunerako onuragarriagoak direla esateko ebidentzia zientifikoa nahiko, eta ez dago batere argi horiek ekoizteko teknika hobea den ingurumenerako. Gainera, urte osoan aurkitu ditzakegu jaki “ekologikoak” merkatuetako apaletan, pestizida sintetikorik gabe baina munduko beste puntan eta sasoiz kanpo

berogailuekin ekoitzi direnak, edo haiek ustiatzeko balio handiko ekosistema bat suntsitzea ekarri dutenak.

Beraz, momentuz, jaki “ekologiko”, “bio” edo “organikoak” betetzen duten irizpidea ongari eta pestizida sintetikorik edo hormonarik gabe ekoitzi izana da, baina ezin da etiketa hori zuzenean ingurumen jasagarritasunarekin lotu.

Izango dira jaki horiek seguru eta nutritiboagoak direla pentsatzen jarraituko dutenak, baita ingurumena zaintzeko asmo onez jaki horiek lehentziko dituzten kontsumitzaileak ere. Baina norberaren sinesmenak alde batera utzita, gure elikadura ohiturekin lotutako ingurumen aztarna murrizteko, bada jarraitu dezakegun jarraibide seguru bat: tokiko eta sasoiko jakiak kontsumitzea.

Beti izango da hobea ingurumenarentzat herriko azokan inguruko baserritar bati bere produktuak erostea. “Ekologikoak” izan ala ez.

Datuak:

Jaki organikoak osasunean duten eragina: Alan D Dangour, Karen Lock, Arabella Hayter, Andrea Aikenhead, Elizabeth Allen, Ricardo Uauy, Nutrition-related health effects of organic foods: a systematic review, The American Journal of Clinical Nutrition, (2010).

Jaki organiko eta konbentzionalen ingurumen aztarnen konparazioa: Seufert, V., Ramankutty, N. & Foley, J. Comparing the yields of organic and conventional agriculture. Nature (2012)

ZAHAR EGOITZAK

Ereduak birplanteatzea, are beharrezkoagoa covid-19ak eragindako krisiaren ondoren

 **IKERKUNTZA** / Beatriz Gonzalez (UOC)

Estatuko egoitze-tan hildakoak Osasun Ministerioak ofizialki jakinarazitako guztien %69 dira. Gainera, bizirik dirautenak bazterturik sentitu dira, arriskuko populazio gisa seinalatu dituztelako eta adinkeria nagusi den gizarte batean bizi direlako. Roser Beneito Montagut Kataluniako Unibertsitate Irekiko (UOC) Informatika, Multimedia eta Telekomunikazio ikasketetako irakasle eta Unibertsitateko CareNet taldeko ikertzaileak dioenez, osasun krisian elementu horiek nahasi egin dira eta bazterketa sentimenduak sorrarazi dituzte, adinaren eta teknologiaren inguruko estigmak sendotzeaz gain.

Beneito irakaslearen arabera, krisian modu guztiz asistentzialista batez begiratu zaie adineko pertsonari: «ez dator bat beste larrialdi eta hondamendi batzuetan adinekoek nola erantzuten duten erakusten duen ebidentziarekin. Pandemiaren aurkako talderik ahulena izateak ez du esan nahi egoera kritikoari aurre egiteko baliabide gutxien dituen gizarte taldea denik. Bizi esperientzia handia dute, eta teknologiak ere erabiltzen dituzte –nahiz eta teknologia telefonoa izan, ezin dugu garrantzirik gabekotzat jo, ‘berria’ ez izateagatik–», dio.

Adituen kritika nagusietako bat da pandemian gertatzen ari den adineko pertsonen bazterketa, bai eta haiei dagozkien erabakiak hartzerakoan egiten dena ere. «Oso gutxi entzuten zaie adineko pertsonari, bereziki ‘ahul’ edo ‘arriskuko’ seinalatu ditugunak», zioen Daniel Lopez Kataluniako Unibertsitate Irekikoko Psikologia eta Hezkuntza Zientzietako irakasle eta halaber CareNet

Adinekoen egoitzak jomugan egon dira SARS-CoV-2 koronabirusaren pandemiaren hasieratik. Argitaratutako azken datuen arabera, Estatu espainoleko 5.500 egoitzatan 19.000 lagunetik gora hil dira covid-19aren eta gaixotasun horrekin bat datozen sintomen ondorioz. Gainera, bizirik iraun dutenak bazterturik sentitu dira, arriskuko populazio gisa seinalatu dituztelako eta adinkeria nagusi den gizarte batean bizi direlako.



ikerketa taldeko kideak “Contexto y Acción” (Ctxt) aldizkari digitalean argitaratutako artikuluan batean. «Argi dago ahal den guztia egiten ari garela haien bizia salbatzeko, baina ez diegu galdetzen ea beraiek hori guztia onartzeko prest dauden, nola ari diren bizitzen egoera, noraino iritsi beharko litzatekeela uste duten, nola egin beharko genukeen», erantsi du Lopezek.

Adinekoak gero eta baztertuago dauden egoera horren beste adibide bat da egoitzak medikalizatzeko proposamena, Madril eta beste zenbait erki-degotan argi berdea lortu duena. Lopezen iritziz, horrek ez du arazoa konpontzen. «Inork ez badu instituzio batean bizi nahi, are gutxiago ospitale baten antza duen batean, zergatik nahi dugu adineko pertsonak han bizitzea? Zergatik bihurtu nahi ditugu haien etxeak osasun zentro?», galdetu du. Iritzi berekoa da Lluvi Farre UOeko CareNet taldeko doktoratu aurreko ikertzailea. Hark dioenez, egoitzak ospitale moduko bihurtuta «beharbada bizitza batzuk salbatu ahal izango lirateke, baina hain neurri desesperatuak beste arazo asko ekarriko lituzke eta, batez ere, oso galdera serioa: nork nahi luke bizitza hori?».

ADINEKOEN KOETXEBITZITZA

Agertoki hori dela eta, sektore horretako profesionalek aspalditik eskatzen dutenak jendar-tearen arreta bereganatu du: zahartzaroko laguntza eredua doitu egin beharko litzateke, egoera mota desberdinetarako alternatibak bilatuz, adineko pertsona guztiek ez baitituzte premia berak eta ez baitute arreta bera behar. Baina hori ez da gertatu. «Eguneroko bizitzari etxebizitzak, adiskidetasun

harremanek, familia harremanek, laguntzak eta zaintzak eusten diote, eta horiek bereizi eta, osasun arretaren aldean, bigarren mailan jartzen badira, normalizatu egin dezakegu, bizitza salbatzearen truke, hori guztia sakrifikatzea», azaldu du Lopezek. Adineko jendeak etxean bizi nahi duela gehitu du, «bere bizitzari buruz erabakitzen jarraitu, eta horrek forma asko izan behar ditu». Ez du esan nahi pertsona horrek betiko etxean bizi behar duenik, baina bai bizi den tokian etxean bezala sentitu behar duela».

Hainbat izan daitezke etxebizitza ereduak, hala nola adinekoen koetxebizitza (*cohousing*). Zahartzaroko zainketak antolatzeke eta ulertzeko era bat da, egungo eredutik urrun. «Bakoitzak bere erara eta askotariko formatuetan, adinekoek autogestionatutako elkarlanean etxebizitza proiektuen bidez, zahartzaroka ukorik egin gabe bizitzea lortu nahi dute, baita mendekotasuna eta nariadura kognitiboa iristen direnean ere», dio Daniel Lopez irakasleak.

Sareko Zahartzea (EnR?) lan-kidetzako web plataformaren azken txostenaren arabera, 65 urtetik gorakoak dira biztanleen %19,3, eta laurogeitik gorakoak proportzioak gora egiten jarraitzen du: jada biztanleria osoaren %6,1 dira. Gainera, Estatistika Institutu Nazionalaren kalkuluen arabera, biztanleen ia %30 izango dira adinekoak 2068an. Litekeena da ordurako adinekoen koetxebizitza salbuespena ez izatea. Hala adierazten du BBVAren Pentsioen Institutuak egindako VII. Inkestak. 1957tik 1977ra bitartean jaiotako pertsonen etxebizitza partekatuari buruz galdetu zitzaizen, eta elkarriketatuen %82k ideia ontzat jo zuten.



Aurreko orrialdean, zahar egoitzen kudeaketaren aurkako protesta. Goian, adineko bat egoitza batean.
Luis JAUREGIALTZO - Steven HWG | Unsplash

«Aldaketaren sintoma da adinekoen *cohousing* delakoa. Sintoma hori mintzo zaigu zahartzaroka bizitzeko modu berriei buruz, egoitzen ordezkio beste egoera batzuk imajinatzeko beharrari buruz, nahi ez den bakardadearen arazoari buruz eta, batez ere, zainketak adineko pertsonen eskubideekin bateratzeko moduari buruz», dio Lluvi Farrek. Kataluniako Unibertsitate Irekiko ikertzaileak, Daniel Lopezekin batera, Movicoma proiektuan parte hartzen du, Estatuko adineko pertsonen koetxebizitzaren mugimenduari buruzko le-

hen azterlanean, hain zuzen, eta azaldu duenez, adinekoen koetxebizitzak aukera ematen die pertsonen beren zahartzaroka planifikatzeko, eta plangintza eta aurreikuspen ideia hori berria da.

«Tradizioz, zahartzen garenean, erretiroaren logika bat nagusitzen dela pentsatu izan da; pixkanaka gizartearen parte hartzeari uztea, galtze, gainbehera eta sentontasun irudiak nabarmenduta. Horrek ondorio espezifikoak ditu adineko pertsonen bizitzan. Baina gero eta gehiago ikusten dugu hori ez dela horrela», dio Farrek.

Adinekoek etxean bizi nahi dutela dio Daniel Lopez CareNet ikerketa taldeko kideak, «beren bizitzari buruz erabakitzen jarraitu behar dute, eta horrek forma asko izan behar ditu»

Pandemiak 19.000 hildako baino gehiago utzi ditu Estatu espainoleko zaharren egoitzetan, ofizialki jakinarazitako guztien %69, eta bizirik dirautenak bazterturik sentitu dira

Etxebizitza mota horren alderdi positibo batzuk gizarte harremanen sustapena eta norberaren etorkizunari buruz erabakitzeak dakartzan onurak dira. Izan ere, adituen arabera, koetxebizitzak, ongizate fisikoan ez ezik, psikologikoan ere eragin dezake, baita gure autonomian ere. «BCONNECT@HOME proiektuan ikusi dugunez, etxebizitza mota guztiek gizarte konektagarritasunari eragiten diote eta elkarrekin lotuta daude. Konfinamendu zorrotzean adineko pertsona guztiak etxebizitza mota guztietan bakartuta sentitu badira ere, ikusi dugu funtsezko elementuetako bat bizilekuan erabakiak hartzeko prozesuan parte ez hartzea izan dela», adierazi du Beneitok. «Haien iritziak kontuan hartu diren eta konfinamendu egoerako bizitzaren antolaketan parte hartu duten lekuetan, deskonexio sozialeko sentimendua ez da hain handia izan», esan du UOCo irakasleak.



Ana Elozegi Serna

Harremanak Hezkuntza Elkarteko kidea

Zentzuz jokatzeari, denon onura

Azer-nolako urte zail eta xelebrea daramagun... 2021a lasaiagoa etorriko ote da! Alabarekin konfinamendu garaian serieak ikusten hasi nintzen, une haiek bion artean konpartitzen genuen denbora bihurtuz. Eta ordutik hona, ohiturari jarraituz, tarteka serie berri bat ikusten dugu elkarrekin, bion arteko konplizitate une bihurtuz, bere nerabezaroaren eta nire menopausia-aurrearen arteko zubi. Serie horietan gudak, krisiak, jendarte aldaketak ikusten dira. Emakumeak, indarrak batuz, orduko matxismoari aurre egiten, emakume ausartak, oraingoak bezala...

Eta orain horrelako serie bat ikusten ariko banintz bezala sentitzen naiz martxoaren 14tik hona. Serie guztiz beldurgarria hirugarren adinekoentzat, eta gu, seme-alabok, nola jokatu jakin ezin. Haurrak beldurrez daude orain sei hilabete normalak ziren jolasekin; elkar ukitzea, mukiak eta kalenturak izuaren sortzaile dira egun.

Eta gurasoek haurrei une oro arau berriak erakutsi nahian, eztula ez egin, ez ukitu hura, «eske Martinen amari beldurra ematen dio zurekin jolasteak», ez dakigu ikastola irekiko ote den... Aitonari muxurik ez, eta amona zaindu behar dugu!

Gazteak flipatzen, noski. Beraien udaberria zoroan loratzen den bitartean, inguruko kutsatze askoren errua beraiei leporatzen zaie, «eske ez dituzue prebentzio neurriak errespetatzen, ezin zarete 1:00ak baino beranduago kalean ibili, maskara erabili mesedez eta kontuz ibili!».

Eta helduok, galduta. Batzuk pandemiarekin oso sinistuta, ezinegon eta beldurrez, eta beste batzuk, aldiz, askoz kritikoago, beste ahots esanguratsu batzuk entzun eta haien iritzia profesionalak zabaldu nahian sare sozialen medioz.

Mediku eta osasun langileen artean iritzi kontrajarriak daude eta herritar xumeak galduta ezjakintasunean, zeini sinistu ez dakitela! Eta tartean ekonomia, langabezia tasak gora, haurrak etxeetan azkenengo sei hilabeteetan... Egia esan, nahiko meritu badugu guztiok!

Jendarte sistema aldaketa baten aurrean gaude, sistema sozioekonomikoaren aldaketa baten aurrean. Lehenengo gauza, alderdi asko berrikusiz beste eredu jasangarriago bat eraiki behar dugu. Ekonomia feminista bat sortu beharko genuke. Nire ustez oraintxe da garaia hezkuntza aldatu eta buelta batzuk emateko, emozionalari eusteko.

Elikadura osasuntsua izan eta gertuko elikagaiak kontsumitu eta bertakoaz bizitzeko, landa eremuei indarra emateko, dirulaguntzen bidez. Oraintxe da garaia gure sistema immunologikoa indartzeko, naturarekin harremana piztu eta hura zaintzeko. Oraintxe da garaia krisi sozioekonomiko hau aprobetxatu eta beste bizimodu bat eraikitzeko. Kolektiboei indarra emateko, norbanakotik taldera joateko. Geure buruari galdetzeko nola bizi nahi dugun Euskal Herrian. Gure pandemiak, gure bizimoduak, geure erara gestionatu eta errepublika bat sortzeko. Politikoki ere egitura ezberdinak behar direlako, ausartak izan beharko ginateke, irakurri, informatu, dena ez sinistu eta hausnartu.

Mugimendu asko sortzen ari dira eta hori oso interesgarria da. Bitartean nire aukera zentzuz jokatzeko gomendioa da. Maskarak erabili behar dira, bai; orduan, erabil ditzagun sen ona baliatuta, bakarrik gune itxietan eta distantziari ezin zaionean eutsi. Nire gertuko jendeari, maite dudana hari, besarkatzeko baimena eskatu eta besarkatzen jarraitzea. Lanean protokolo guztiak betetzea, denok segurtasunez jardun ahal izateko.

Nire gertuko adineko pertsonen galdetzea beraiek nola sentitzen diren krisi egoera honetan, eta errespetatzea zer nahi duten, betiere bizitzen ari diren bakardadea samurtuz, zentzua erabiliz. Zentzua. Hori da egunerokotasunean lagundu dezakeena, seriearen kapitulu ezberdinak idazten goazen bitartean! •



Oraintxe da garaia beste bizimodu bat eraikitzeko. Andoni CANELLADA | FOKU

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



SANCHO EL SABIO FUNDAZIOA

BILBOKO ALONDEGIKO SUTE IKARAGARRIA

1919ko maiatzaren 21ean, goizeko lauretan, sute handia piztu zen Bilboko alondegian. Alkohol biltegi batzuetan hasi zen. Sutea itzaltzeko lanetan, suhiltzaileak iritsi arte, inguruko bizilagunek parte hartu zuten. "El Liberal" egunkariak lehen orrialdean jaso zuen gertaera, eta honela zioen: «Sute ikaragarria Alondegian». Malagatik ekarritako 200.000 litro olio eta ardo eta kontserba kantitate handiak erre zirela ere aipatzen zuen. Itzaltze lanetan Alejandro Aretxabala suhiltzailea hil eta beste bederatzi zauritu ziren. Hilaren 21eko gauean eraikinak sugarretan zirauen eta Errekalde Zumarkalera ematen zuen zatia erori egin zen. Ikusnahiak bertaratu zirela ere bazioen berriak: «Arratsaldean, gazte jostun asko alondegira joan ziren tailerreko lanak utzita». Pertsona askoren deiadarrak ere jaso zituen: «Hau zoritxarra! Bilboren hondamena da!». "La Gaceta del Norte" egunkariak «ikaragarritzko sutea» eta 30 milioi pezeta baino gehiagoren galera aipatzen zituen lehen orrialdean. "Nerbioi" arratsaldeko egunkariak «Udal alondegia sute izugarria eta suntsiketa» izenburua jarri zuen, eta zenbait argazki argitaratu. Autore ezezaguneko irudian, suhiltzaileak sutea itzaltzen ageri dira, eta jende asko tragediari begira. Argazkia Fernandez del Campo kaleko eraikin batetik egin da, etxadiaren erdialdetik. Errekalde Zumarkaleko izkinako alondegia fatxada xehetasun gehienekin ikusten da, baina ez osorik. Eskuinaldean orube huts bat dago, agertzen den eskola eraikinaren aurrean. Eraikin horrek oraindik badirau, pixka bat aldatuta; 1933an Rag Garajea eraiki zuten bertan, 2011n eraitsitako obra arrazionalista nabarmena.

GAUR8

ireki gure leihoa

